


49.
**EUSKAL
HERRIKO
DANTZA**
txapelketa

2025

SEGURA  Urriak 18

49.

**EUSKAL
HERRIKO
DANTZA**
txapelketa



BARATZE PILOTALEKUAN

18:00etan FINALA

**ATSEDENALDIAN
OINKARI DANTZA TALDEAREN**
ERROTAN dantza ikuskizuna.

Antolatzailea



SEGURAKO UDALA

Kolaboratzaileak



eitb

Babesleak



GIPUZKOA
Kultura



AMPO



49. EUSKAL HERRIKO DANTZA txapelketa

2025eko urriaren 18an jokatu da aurtien 49. Euskal Herriko Dantza Suelto Txapelketa. Bertan Euskal Herriko dantza-bikote hobereenek parte hartuko dute, eta gure lurralde ezberdinetako arin-arinez eta fandangoaz gozatzeko aukera ezin hobea izango du ikusleak. Txapelketaren antolatzaile den Segurako Udalak ikuskizun paregabe honetara bertaratzeko gonbitea luzatzen dizu. Beraz, euskal folklorea maite duenak zita du Seguran, urriaren 18an.

49. EUSKAL HERRIKO DANTZA txapelketa

OINARRIAK

1. Txapelketa urriaren 18an ospatuko da, Segurako Baratze pilotalekuan, arratsaldeko 18:00etan. Dantza-saioa Euskal Telebistak emango du.
2. Fandangoa eta Arin-Arina landua duen edozein bikoteek parte har dezake baldin eta bikotearen kide batek, bederen, 16 urte beteta baditu.
3. Dantza-bikote bakoitzak Euskal Herriko herri bakar bat ordezkatzeko du. Ez lego ke arazorik herri bat bikote bat baino gehiagoren partetik ordezkaturik balego.
4. Hamabost bikote baino gehiago apuntatuta izanik, kanporaketa-saio bat burutuko litzateke, hamabi bikote sailkatzeko finalerako. Kanporaketa-saio hau urriaren 17an izango litzateke, arratsaldeko 19:30ean. Lurralde guztiak finalean ordezkaturik egon ezean, txapelketa nagusian parte hartzeko aukera emango zaio lurralde bakoitzeko bikote onenari.
5. Bikoteak zenbatgarren postuan dantzatzeko duten zehazteko, txanda-zozketa burutuko da alde zuzenetik Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrean eta alde zuzenetik ohartaraziko zaie bikoteei zozketaren eguna eta ordua.
6. Fandangoa txistuz ala albokaz dantzatzeko aukera izango dute bikoteek, arin-arina, aldiz, trikitiak soilik.
7. Usadiozko jantziak eramango dituzte dantzariak soinean, eta onenak sari berezia jasoko du.
8. GEDBko dantza-suelto batzordean adituak diren pertsonekin izendatuko da epaimahaia, ezarrita dauden arau eta irizpideetan oinarrituta epaia. Hauek bertako dsueltoa web-orrian kontsulta daitezke:
<https://sites.google.com/view/dsueltoa/dokumentuak/txapelketen-araudia>

9. Izen-ematea: Gipuzkoako Dantzarien Biltzarreko ondorengo loturan egin behar da: <https://forms.gle/Fv8vHawo2Yci5ar27>
Bertan aurkituko den formularioan bikotearen eta kide bakoitzaren hainbat datu sartuz: Izen-abizenak, telefonoa, helbidea, ordezkatzeko duten herria, jantziak deskribapena, dantza eskola edo irakaslea, dantzan daramaten denbora eta Segurako zenbat aldiz parte hartu duten.
Epea: **2025eko IRAILAREN 26an** eguerdiko ordubiak aurretik.
Xehetasun edo informazio gehiagorako zuzendu:
Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarra: 943289848 / dsueltoa@gmail.com edo Segurako Udaletxera: 943801006 / kultura@segura.eus
- 10 Txapelketan parte hartze berak oinarrion guztizko onespina adierazten du. Hauen inguruko zalantzarik sortuz gero, lehiaketaren antolatzaileei, Segurako udalari alegia, legokio auzia ebaztea.

OHARRAK

1. Dantza txapelketako nahiz jantzi sariketarako ekitaldietan parte hartzen duten bikoteek ANTOLATZAILEEN esku jartzeko euren eskubideak, bai ekitaldion entzun ikusizko grabazioa egin ahal izateko eta baita grabazioen telebista emanaldi publikorako ere, emanaldi kopuruaren mugarik gabe, edozein telebista modurako (doaneko edo ordaindua, kopetua edo gabea, programazio finko ala aukerakoduna, telebista digitala, eta abar.) eta zernahi emisio edo transmisio sistematarako (kablezko, satelitezko, uhin hertziarretakoa nahiz bideo elkar osagarrituz burututakoa). Eskubide hauen lagapena eskusiaz egiten da mundu osorako, hirugarren bati eskusiaz lagatzeko ahalmenarekin eta legeek aurreikusitako duten denboraldi guztirako.
2. Finalerako sarrerak www.segura.eus webgunean salgai jarriko dira urriaren 2ko 10:00etatik aurrera.

SARI NAGUSIAK:

1. SARIA: SEGURAKO UDALAREN SARI NAGUSIA:

- **Koldobika Jauregiren eskultura.** Sari hau bikote txapeldunak ordezkatzeko duen udaletxera eramango da, eta bertan egongo da hurrengo txapelketa ospatu arte. Udalerrri bat eskulturaren behin-betiko jabe egingo da bost urteren buruan herria ordezkatu duen bikote berak hiru aldiz irabaziko balu txapelketa.
- **Txapela eta lepokoa**
- **800 euro eta oroigarria**
- **Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak emandako trofeoa**

2. **SARIA:** 600 euro eta oroigarria.

3. **SARIA:** 500 euro eta oroigarria.

BESTE SARIAK:

- **GUILLERMO AREIZAGA SARI BEREZIA (dantza txapelketaren sortzaile eta sustatzaile izan zenaren omenez):** Lehendabiziko aldiz aurkezten diren bikoteen artean ongien sailkatu denari.
- **JANTZIEN saria:** 150 euro (Finalean bakarrik).
- **HERRIKO BIKOTE ONENARI saria:** oroigarria.
- **LURRALDEETAKO BIKOTE ONENEI saria:** lurralde bakoitzeko foru aldundiak emanda.
- **Lehenengo hiru postuetan sartu ez direnentzat dieta:** 200 euro bikote bakoitzari.
- **Kanporaketan parte hartu eta Finalerako sailkatuak izan EZ diren bikoteentzat dieta:** 100 euro bikote bakoitzari.